

## Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

---

### **ITZULPENA<sup>1</sup>**

Erregelamendua: 177/2008 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko otsailaren 20koa, helburu estatistikoz erabilitako enpresa-erregistroak arautzeko esparru komuna ezarri eta Kontseiluaren 2186/93 (EEE) Erregelamendua indargabetzekoa

---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO 177/2008 (CE) del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de febrero de 2008, que establece un marco común para los registros de empresas utilizados con fines estadísticos y deroga el Reglamento (CE) nº 2186/93 del Consejo» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L61/6, 2008/03/05ekoa*)»

177/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 61/6, 2008/03/05ekoa)

**177/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2008ko otsailaren 20koa,**

**helburu estatistikoz erabilitako enpresa-erregistroak arautzeko esparru komuna ezarri eta Kontseiluaren 2186/93 (EEE) Erregelamendua indargabetzekoa**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNeko KONTSEILUAK

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren  
285. artikulua 1. paragrafoa ikusirik,

Batzordearen proposamena ikusirik,

Tratatuaren<sup>2</sup> 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki

Honako hauek hartu dira kontuan:

- (1) Kontseiluaren 2186/93 (EEE) Erregelamendua<sup>3</sup> esparru komun bat ezarri zuen helburu estatistikoz erabilitako enpresa-erregistroak sortzeko, eta definizioak, ezaugarriak, aplikazio-esparrua eta eguneratze-prozedurak bateratu zituen. Enpresa-erregistroak esparru bateratu batean garatzen jarrai daitezten, beste erregelamendu bat onartu behar da.
- (2) Kontseiluaren 696/93 (EEE) Erregelamendua<sup>4</sup>, 1993ko martxoaren 15ekoak, Erkidegoko ekoizpen-sistemaren behaketa- eta azterketa-unitate estatistikoei buruzkoak, erabili behar diren unitate estatistikoak definitzen ditu. Barne-merkatuari begira, beharrezkoa da estatistiken alderagarritasuna hobetzea, Erkidegoaren beharrei erantzuteko. Hobekuntza hori lortuko bada, enpresentzako baterako definizio eta deskribapenak adostu behar dira, baita erabili beharreko unitate estatistiko gokiak ere.
- (3) Kontseiluaren 1996ko abenduaren 20ko 58/97 (EE/Euratom) Erregelamendua<sup>5</sup>, enpresen egiturazko estatistikei buruzkoak, eta Kontseiluaren 1998ko maiatzaren 19ko 1165/98 (EE) Erregelamendua<sup>6</sup>,

abaguneko estatistikei buruzkoak, Erkidegoko enpresen egiturari, jarduerari, lehiakortasunari eta emaitzei buruzko erkidego-estatistikak jaso, bildu, adierazi eta ebaluatzeko esparrua xedatu zuten. Helburu estatistikoz erabil daitezkeen enpresa-erregistroak oinarritzakoak dira esparru horretan, eta estatistika-inkestak antolatzeko eta koordinatzeko aukera ematen dute, laginketa-esparrua bateratuz.

- (4) Enpresen erregistroak aurkako bi eskakizun bateratzeko aukera ematen duten elementuetako bat dira; hain zuzen, alde batetik enpresei buruzko informazio alderagarri gehiago lortzeko eskakizuna eta beste batetik enpresen administrazio-betebeharrak arintzeko bateratzen ditu. Horretarako, espediente administratibo eta juridikoetan dauden datuak erabiltzen dira bereziki, batez ere, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen kasuan, Batzordearen 2003/361/EE Gomendioan<sup>7</sup> adierazita dagoenez.
- (5) Kontseiluaren 1997ko otsailaren 17ko 322/97 (EE) Erregelamendua<sup>8</sup>, Erkidegoaren estatistikari buruzkoak, Erkidegoko estatistika-programa bat ezarri zuen, bai eta estatistika-sekreturako esparru komuna ere.
- (6) Erkidegoko estatistika-programaren esparruan datuak tratatzeko berariazko arauak ez dute eraginik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentarauan<sup>9</sup>. Zuzentzarau horrek pertsona fisikoak babesten ditu, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazioari dagokienez.
- (7) Helburu estatistikoak dituzten enpresa-erregistroak enpresen demografiari buruzko informazio-iturri nagusia dira; enpresa-erregistro horiei esker, sortzen eta ixten diren enpresen jarraipena egin daiteke, baita zenbait eragiketaren —enpresen fusioak, xurgapenak, desegiteak, zatiketak, berregituraketak...— ondoriozko kontzentrazioak edo deskontzentrazioak ekonomian eragiten dituzten egiturazko aldaketena ere.
- (8) Enpresa-erregistroek oinarritzako informazioa ematen dute, politikariek landa-garapenarekiko duten interes handiari erantzuteko, ez nekazaritzari buruz duten interesari dagokionez soilik, baizik eta baita ekoizpenean oinarritutako nekazaritza-estatistikek aintzat hartzen ez dituzten jardueren eta nekazaritzaren arteko konbinazioari dagokionez ere.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006ko ekainaren 1ekoa —EO C 298 E, 2006-12-08koa, 127. or.—, Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2007ko maiatzaren 21ekoa —EBEO C 193 E, 2007-08-21ekoa, 1. or.—, Europako Parlamentuaren Jarrera, 2007ko urriaren 25ekoa —oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu— eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko urtarrilaren 21ekoa —oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu—.

<sup>3</sup> EO L 196, 1993-08-05ekoa, 1. or. Erregelamendu hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 (EE) Erregelamendua —EO L 284, 2003-10-31koa, 1. or.— aldatu zuen.

<sup>4</sup> EBEO L 76, 1993-03-30ekoa, 1. or. Erregelamendu hori 1882/2003 (EE) Erregelamendua aldatu zuen azkenekoz.

<sup>5</sup> EO L 14, 1997-01-17koa, 1. or. Erregelamendu hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1893/2006 (EE) Erregelamendua —EO L 393, 2006-12-30ekoa, 1. or.— aldatu zuen azkenekoz.

<sup>6</sup> EO L 162, 1998-06-05ekoa, 1. or. Erregelamendu hori 1893/2006 (EE) Erregelamendua aldatu zuen azkenekoz.

<sup>7</sup> EO L 124, 2003-05-20koa, 36. or.

<sup>8</sup> EO L 52, 1997-02-22koa, 1. or. Erregelamendu hori 1882/2003 (EE) Erregelamendua aldatu zuen.

<sup>9</sup> EO L 281, 1995-11-23koa, 31. or. Zuzentzarau hori 1882/2003 (EE) Erregelamendua aldatu zuen.

- (9) Enpresa publikoek oso zeregin garrantzitsua dute estatu kideetako ekonomia nazionalan. Batzordearen 1980ko ekainaren 25eko 80/723/EEE Zuzentaraua<sup>10</sup>, estatu kideen eta enpresa publikoen arteko harremanen gardentasunari buruzkoa, enpresa publikoen zenbait motari aplikatzen zaie. Horren ondorioz, enpresa-erregistroetan enpresa eta sozietate publikoak identifikatzea komeni da, eta hori erakunde-sektorea sailkatzearen bidez lor daiteke.
- (10) Beharrezkoa da unitate juridikoen artean zer kontrol-harreman dauden jakitea, enpresa-taldeak zehazteko, enpresa bakoitza zuzen mugatzeko, unitate konplexu eta handiak bereizteko eta zenbait merkaturen kontzentrazio maila aztertzeke. Enpresa-taldeei buruzko informazioak enpresa-erregistroen kalitatea hobetzen du, eta datu konfidentzialak zabaltzeko arriskua txikitzeke erabil daiteke. Askotan, zenbait finantza-datu esanguratsuagoak dira enpresa-taldeentzat eta azpitaldeentzat enpresa bakar batentzat baino, eta taldeentzat eta azpitaldeentzat soilik dira erabilgarriak. Beharrezkoa izanez gero, enpresa-taldeen datuen erregistroek inkestak taldeari zuzenean egiteko aukera ematen dute. Horri eskerrak, ez da beharrezkoa inkestak taldea osatzen duten enpresa guztiei egitea, eta, horrela, asko arin daiteke erantzun-karga.

Enpresa-taldeak erregistratzeko, ezinbestekoa da enpresa-erregistroak gehiago bateratzea.

- (11) Ekonomiaren gero eta globalizazio handiagoa erronka handia da zenbait estatistikaren egungo ekoizpenerako. Enpresa-talde multinazionalen datuen erregistroari esker, enpresa-erregistroak oinarritzko tresnak dira globalizazioari buruzko estatistika asko hobetzeko: ondasun eta zerbitzuen nazioarteko merkataritza; ordainketa-balantza; atzerriko zuzeneko inbertsioak; atzerriko filialak; ikerketa, garapena eta berrikuntza; eta nazioarteko lan-merkatua. Estatistika horietako gehienak ekonomiaren osotasunari dagozkio, eta horrek enpresa-erregistroek ekonomiaren sektore guztiak estaltzea eskatzen du.
- (12) Kontseiluaren 1990eko ekainaren 11ko 1588/90 (Euratom, EEE) Erregelamenduak<sup>11</sup> — estatistika-sekretuak babestutako informazioak Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoari nola eman agintzen du— 3. artikuluko 2. paragrafoan ezartzen duenaren arabera, ez dago estatu kideek estatistika-sekretuari buruz egiten dituzten xedapenen babesa eskatzerik Erkidegoaren agintaritzari (Eurostati) estatistika-datu konfidentzialak ematea eragozteko, baldin eta erkidegoaren egintza juridiko batek datu horiek ematea aurreikusten badu.
- (13) Erregelamendu honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, estatu kideetan datuak biltzeaz arduratzen diren institutu nazionalak

administrazio-datuen iturrietara jo beharko dute, agian, besteak beste, agintaritza fiskalen eta gizarte-segurantzaren erregistroetara, banku zentraletara, beste erakunde publiko batzuetara eta mugaz bestaldeko eragiketei eta posizioei buruzko informazioa duten beste datu-base batzuetara, betiere, datu horiek beharrezkoak badira erkidegoaren estatistikak egiteko.

- (14) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko urtarrilaren 12ko 184/2005 (EE) Erregelamenduak<sup>12</sup>, ordainketa-balantzari, nazioarteko zerbitzu-merkataritzari eta atzerriko zuzeneko inbertsioei buruzko Erkidegoko estatistiken gainekoak, Erkidegoko estatistikak egiteko, transmititzeko eta ebaluatzeko esparru komuna ezarri du.
- (15) Bidezkoa da erregelamendu hau betearazteko derrigorrezko neurriak onartzea, Batzordeari esleitutako aplikazio-eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren<sup>13</sup> arabera.
- (16) Bereziki, Batzordeari eskumenak ematea komeni da, honako hauetarako: enpresarik txikienen eta enpresa-talde egoiliarren estaldurari buruz erabaki dezan; eranskinean jasotako erregistroen zerrenda, definizioa eta jarraitutasun-arauak egunera ditzan; kalitatezko arau orokorrak eman ditzan; kalitate-txostenen edukia eta aldizkakotasuna zehaztu ditzan; eta erregistroen eguneratze-arauak eman ditzan. Irispide orokorreko neurriak direnez eta erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta funtsezkoak ez diren elementuez osatzea dutenez xede, 1999/486/EE Erabakiaren 5 bis artikuluan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.
- (17) Horrenbestez, bidezkoa da 2186/93 (EEE) Erregelamendua indargabetzea.
- (18) Kontseiluaren 89/382 (EEE, Euratom) Erabakiak<sup>14</sup> ezarritako estatistika-programaren komiteari aholkua eskatu zaio.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

### Helburua

Erregelamendu honek Erkidegoan helburu estatistikoz erabilitako enpresa-erregistroak arautzeko esparru komuna ezartzen du.

<sup>10</sup> EO 195 L, 1980-07-29koa, 35. or. Zuzentarau hori 2005/81 (EE) Erregelamenduak —EO L 312, 2005-11-29koa, 47. or.— aldatu zuen azkenekoz.

<sup>11</sup> EO L 151, 1990-06-15ekoa, 1. or. Erregelamendu hori 1882/2003 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen azkenekoz.

<sup>12</sup> EO L 35, 2005-05-08koa, 23. or. Erregelamendu hori Batzordearen 602/2006 (EE) Erregelamenduak —EO L 106, 2006-04-19koa, 10. or.— aldatu zuen.

<sup>13</sup> EO L 184, 1999-07-17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512 (EE) Erabakiak —EO L 200, 2006-07-22koa, 11. or.— aldatu zuen.

<sup>14</sup> EO L 181, 1989-06-28koa, 47. or.

Estatu kideek fitxategi bateratu bat edo gehiago sortuko dituzte, helburu estatistikoz. Fitxategi horiek inkestak prestatzeko eta koordinatzeko erabiliko dira, baita enpresetako populazioari eta demografiari buruzko azterketa estatistikorako informazioa lortzeko, administrazio-datuak erabiltzeko, eta unitate estatistikoak hautemateko eta eratzeko ere.

## 2. artikulua

### Definizioak

Hona hemen erregelamendu honetako kontzeptu hauen esanahia:

- a) «Unitate juridiko», «enpresa», «tokiko unitate» eta «enpresa-talde»: 696/93 (EEE) Erregelamenduaren eranskinean zehaztutako terminoak.
- b) «Agintari nazional»: 322/97 (EE) Erregelamenduko 2. artikuluan definitutako terminoa izango da.
- c) «Helburu estatistiko»: 1588/90 (EEE) Erregelamenduaren 2. artikuluko 4. paragrafoan zehaztutako terminoa.
- d) «Enpresa-talde multinazional»: enpresa-taldeen bi enpresa edo unitate juridiko izango dituzte, gutxienez, herrialde banatan.
- e) «Enpresa-talde trunkatu»: herrialde bereko enpresa-talde multinazional bateko enpresa edo unitate juridikoak. Unitate bakarra izan dezakete, gainerako unitateak egoiliarak ez badira. Enpresa bat enpresa-talde trunkatu izan daiteke, edo haren zati bat.

## 3. artikulua

### Aplikazio-eremua

1. 2. artikuluko definizioen eta artikuluko honetako murrizketen arabera, honako hauek erregistratuko dira:
  - a) barne-produktu gordinean (BPGan) eragina duen jarduera ekonomikoa duten enpresa guztiak eta haien tokiko unitateak
  - b) enpresa horiek osatzen dituzten unitate juridikoak
  - c) enpresa-talde trunkatuak eta enpresa-talde multinazionalak
  - d) enpresa-talde egoiliarak
2. Dena den, 1. paragrafoan ezarritako betekizuna ez zaie etxeei aplikatuko, baldin eta ekoizten diren ondasun eta zerbitzuak autokontsumorako badira edo ondasun higiezinaren alokairuarekin lotuta badaude.
3. Nortasun juridiko independentea ez duten tokiko unitateak (sukurtsalak) enpresatzat hartuko dira, enpresa-erregistroei dagokienez, baldin eta atzerriko enpresen mendean badaude eta, Kontseiluaren 1996ko ekainaren 25eko 2223/96 (EE)

Erregelamenduak<sup>15</sup>, Erkidegoko nazioko eta eskualdeko kontu-sistemari buruzkoak, ezarritako Europako 1995eko Kontu Sistemaren eta Nazio Batuen 1993ko Kontabilitate Nazionalaren Sistemaren arabera, kuasi-sozietatetzat sailkatuta badaude.

4. Enpresa-taldeak haien unitate juridikoen kontrol-harremanetan oinarrituta zehaztu daitezke. Enpresa-taldeak mugatzeko, 2223/96 (EE) Erregelamenduaren A eranskineko 2.26 puntuan kontrolerako ezarritako definizioa erabiliko da.

5. Jarduera ekonomikoa bat osorik edo partzialki egiten duten unitateei aplikatuko zaie erregelamendu hau. Merkatu jakin batean ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituen edozein jarduera hartuko da jarduera ekonomikotzat. Horrez gain, enpresa-erregistroen ondorioetarako, BPGan eragina duten ez-merkatuko zerbitzuak ere hartuko dira jarduera ekonomikotzat, bai eta zuzenean edo zeharka unitate juridiko aktiboak izatea ere. Ekonomikoki aktiboak ez diren unitate juridikoen, enpresa baten barruan egoteko, ekonomikoki aktiboak diren unitateekin konbinatuta egon behar dute.

6. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (langile erdi baino gutxiagoko enpresak eta estatu kideentzat interes estatistikorik ez duten enpresa-talde egoiliarak erregistroan sartzeari buruzkoak) eta nekazaritza-estatistiketan erabilitakoekin koherenteak diren unitateen definizioa 16. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera zehaztuko dira.

## 4. artikulua

### Informazio-iturriak

1. Estatu kideek erregelamendu honetan aipatutako informazioa bildu ahal izango dute, eta horretarako egokitzat jotzen duten edozein iturri erabili, 6. artikuluan eskatutako kalitate-baldintzak betetzen badituzte. Agintari nazionalak, beren eskumen-esparruan, txosten administratibo eta juridikoetako informazioa biltzeko baimena izango dute, baldin eta erregelamendu honek estaltzen badu, eta estatistika-helburuetarako bada.

2. Beharrezko informazioa arrazoizko kostuan lortzerik ez badago, agintari nazionalak estatistika-kalkuluko prozedurak erabili ahal izango dituzte, zehaztasun eta kalitate mailari eusten badiote.

## 5. artikulua

### Erregistroen ezaugarriak

1. Erregistroetan sartutako unitateek eranskinean zehaztutako identifikazio-zenbakia eta informazio deskribatzailea izango dituzte.

<sup>15</sup> EO L 310, 1996-11-30ekoa, 1 or. Erregelamendu hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1392/2007 (EE) Erregelamenduak —EO L 324, 2007-12-10ekoa, 1. or.— aldatu zuen azkeneko.

2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatu behar dituzten neurriak, ezaugarri-zerrenda eguneratzeari eta ezaugarriak eta jarraitutasun-arauak zehazteari buruzkoak, 16. artikuluko 3. paragrafoan jasotako kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

#### 6. artikulua

##### **Kalitate-arauak eta txostenak**

1. Estatu kideek enpresa-erregistroen kalitatea bermatzeko neurriak hartuko dituzte.
2. Estatu kideek enpresa-erregistroen kalitateari buruzko txostenak (hemendik aurrera, kalitateari buruzko txostenak) emango dizkiote Batzordeari (Eurostati), hark eskatuta.
3. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatu behar dituzten neurriak, kalitate-arau komunei buruzkoak, eta kalitateari buruzko txostenen edukia eta aldizkakotasuna 16. artikuluko 3. paragrafoan jasotako kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira, datuak jasotzearen kostua kontuan hartuta.
4. Estatu kideek Batzordeari (Eurostati) jakinaraziko dizkiote metodologian egindako aldaketa nagusiak eta enpresa-erregistroen kalitatean eragina izan dezaketen gainerako aldaketak, horien berri izan bezain laster eta indarrean sartu eta sei hileko epean gehienez ere.
5. Batzordeak erregelamendu honen aplikazioari buruzko txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Txosten horretan, estatistika-sistemaren kostuari, enpresentzako kargei eta sistemaren onurari helduko zaie, bereziki.

#### 7. artikulua

##### **Gomendioen gidaliburua**

Batzordeak enpresa-erregistroak egiteko gomendioen gidaliburua argitaratuko du, eta estatu kideekin batera eguneratuko da.

#### 8. artikulua

##### **Egutegia eta aldizkakotasuna**

1. Erregistroetako altak eta bajak urtean behin eguneratuko dira, gutxienez ere.
2. Eguneratze-maiztasuna unitate motaren, aintzat hartutako aldagaiaren, unitatearen tamainaren eta eguneratzeko oro har erabilitako iturriaren arabera aldatuko da.
3. Eguneratze-arauei buruzko neurriak, erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatu behar dituztenak, 16. artikuluko 3. paragrafoan jasotako kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.
4. Estatu kideek kopia bat egingo dute urtean behin, urtearen amaieran erregistroak zer egoeratan dauden adierazteko. Kopia horiek 30 urtez gordeko dituzte, gutxienez ere, aztertu ahal izateko.

#### 9. artikulua

##### **Txostenak helaraztea**

1. Estatu kideek erregistroei buruzko azterketa estatistikoak egingo dituzte, eta informazioa Batzordeari (Eurostati) helaraziko diote. Batzordeak 16. artikuluko 2. paragrafoan jasotako arautze-prozeduraren arabera zehaztuko du informazio hori zer formatutan eta zer prozedurari jarraituz eman behar den.

2. Estatu kideek erregelamendu honen aplikazioari buruzko informazio garrantzitsua emango diote Batzordeari (Eurostat), hark eskatuta.

#### 10. artikulua

##### **Datu konfidentzialen trukea estatu kideen artean**

Estatu kideetako agintari nazional egokiek datu konfidentzialak trukatzeko izango dute, betiere estatistika-helburuez eta truke horren xedea Europar Batasuneko enpresa-talde multinazionalen buruzko informazioaren kalitatea bermatzea bada. Truke hori lege nazionalak errespetatuz egin beharko da. Banku zentral nazionalak ere hartu ahal izango dute parte truke horretan, lege nazionalen erreparaturaz, betiere.

#### 11. artikulua

##### **Datu konfidentzialen trukea Batzordearen (Eurostaten) eta estatu kideen artean**

1. Agintari nazionalen enpresa-talde multinazionalen eta haiek osatzen dituzten unitateen buruzko informazioa helaraziko dute, eranskinen definizioen arabera, Batzordeari (Eurostati) Europar Batasuneko enpresa-talde multinazionalen buruzko informazioa emateko, helburu estatistikoz soilik.

2. Helburu estatistikoa baino ez duen datu-erregistro koherentea bermatzeko, Batzordeak (Eurostatek) enpresa-talde multinazional jakin bati eta hura osatzen duten unitateen buruzko informazioa emango die estatu kide bakoitzeko agintari nazional egokiei, baldin eta talde horretako unitate juridiko bat, gutxienez, estatu kide horren lurraldean badago.

3. Artikulu honetako datuak helburu estatistikoz soilik erabiltzen direla bermatzeko, Batzordeari (Eurostati) banako unitateen buruzko datuak eta agintari nazional egokiei enpresa-talde multinazionalen buruzko datuak helarazteko formatua, segurtasun- eta konfidentzialtasun-neurriak eta prozedura 16. artikuluko 2. paragrafoan araututako arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

#### 12. artikulua

##### **Datu konfidentzialen trukea Batzordearen (Eurostaten) eta banku zentral nazionalen artean**

1. Erregelamendu honen ondorioetarako, datu konfidentzialen trukea helburu estatistikoz soilik egingo da, Batzordearen (Eurostaten) eta banku zentral nazionalen artean eta Batzordearen (Eurostaten) eta Europako Banku Zentralaren artean. Dena den, honako baldintza hauek bete behar dira: trukearen helburua Europar Batasuneko enpresa-talde multinazionalen buruzko informazioaren kalitatea bermatzea izango da eta agintari nazional egokiek berriaz baimendu behar du trukea.

2. Artikulu honetan emandako datuak helburu estatistikoz soilik erabiltzen direla bermatzeko, Batzordeari (Eurostati) banako unitateei buruzko datuak eta agintari nazional egokiei enpresa-talde multinazionalen buruzko datuak helarazteko formatua, segurtasun- eta konfidentziasun-neurriak eta prozedura 16. artikuluko 2. paragrafoan araututako arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

#### 13. artikulua

##### **Konfidentziasuna eta datu identifikagarrietarako sarbidea**

1. Batzordeak (Eurostatek), agintari nazionalak, banku zentral nazionalak eta Europako Banku Zentralak datu konfidentzialak jasotzen dituztenean, informazio hori konfidentziasunez tratatuko dute, 10., 11. eta 12. artikuluen arabera, 322/97 (EE) Erregelamenduari jarraiki.

2. Erregelamendu honen ondorioetarako, eta 322/97 (EE) Erregelamenduari 14. artikuluan araututakoa betetzeko izango bada ere, agintari nazionalak eta Batzordeak (Eurostatek) datu konfidentzialak truka ditzakete, baldin eta beharrezkoa bada Erkidegoko berariazko estatistikak egiteko. Datuak biltzeko ardura duten agintari nazionalak berariaz baimendu beharko dute beste edozein transmisio mota.

#### 14. artikulua

##### **Aldi iragankorra eta salbuespenak**

Enpresa-erregistroetan aldaketa handiak egin behar badira, Batzordeak salbuespenak onar ditzake, estatu kide batek eskatuta. Salbuespen horren epemuga 2010eko martxoaren 25ean amaituko da, beranduenez.

Nekazaritzarako, basozaintzarako eta arrantzarako, administrazio publikorako eta defentsarako, nahitaezko gizarte-segurantzarako eta enpresa-taldeen ezaugarri osagarrietarako, Batzordeak salbuespenak onar ditzake, estatu kide batek eskatuta, baina salbuespen horren epemuga 2013ko martxoaren 25ean amaituko da, beranduenez.

#### 15. artikulua

##### **Aplikazio-neurriak**

1. Neurri hauek, erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzeko helburua dutenak, 16. artikuluko 3. paragrafoan jasotako kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira:

- a) Enpresa txikiak eta enpresa-talde egoiliarak estaltzea, 3. artikuluko 6. paragrafoan ezarritakoaren arabera.
- b) Eranskineko ezaugarriak eguneratzea, bai eta haien definizioak eta jarraitutasun-arauak ere, 5. artikuluko xedatutakoaren arabera. Horretarako, kontuan izan beharko da eguneratzearen onurak kostua baino handiagoa izan behar duela, eta estatu kideei edo enpresei eskatzen zaizkien baliabide osagarriak arazoizkoak izan behar dutela.

- c) Kalitatezko arau orokorrak ezartzea, eta 6. artikuluko 3. Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea  
H.-G. PÖTTERING

paragrafoan araututako kalitateari buruzko txostenen edukia eta aldizkakotasuna finkatzea.

- d) Erregistroak eguneratzeko arauak, 8. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoari jarraituz.

2. Honako hauek aintzat hartzen dituzten neurriak 16. artikuluko 2. paragrafoan araututako arautze-prozedurari jarraiki hartuko dira:

- a) erregistroen azterketa estatistikoaren ondoriozko informazioaren transmisioa, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera
- b) enpresa-talde multinazionalen banako unitateei buruzko datuen trukea, Batzordearen (Eurostaten) eta estatu kideen artean, 11. artikuluan xedatutakoaren arabera
- b) enpresa-talde multinazionalen buruzko datuen trukea, Batzordearen (Eurostaten) eta banku zentralen artean, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera

#### 16. artikulua

##### **Komitea**

1. Estatistika-programako komitearen laguntza izango du Batzordeak.

2. Paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikuluko izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedaturikoa ere errespetatuko da.

1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. bis artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitartekoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedaturikoa ere errespetatuko da.

#### 17. artikulua

##### **Indargabetzea**

2186/93/EE Erregelamendua indargabetu egin da.

Indargabetutako Erregelamenduari egindako aipamenak erregelamendu honi buruzkoak direla ulertuko da.

#### 18. artikulua

##### **Indarrean sartzea**

Erregelamendu hau Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeitun egunera sartuko da indarrean.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon emana, 2008ko otsailaren 20an.

Kontseiluaren izenean  
Presidentea  
J. LENARČIČ

## ANEXO

Los registros de empresas incluirán la siguiente información por unidad. No será necesario conservar separadamente la información de cada unidad si puede obtenerse a partir de otra unidad o unidades.

Los puntos que no llevan ninguna indicación son obligatorios, los que llevan la indicación «condicional» son obligatorios si los Estados miembros disponen de ellos y los que llevan la indicación «facultativo» son aconsejados.

1. UNIDAD JURÍDICA			
CARACTERÍSTICAS IDENTIFICATIVAS	1.1.		Número de identificación
	1.2a.		Nombre
	1.2b.		Dirección (incluido código postal), al nivel más detallado
	1.2c.	Facultativo	Número de teléfono y fax, dirección de correo electrónico e información que permita la recogida electrónica de datos
	1.3.		Número de registro del impuesto sobre el valor añadido (IVA) o, en su defecto, otro número de identificación administrativa
CARACTERÍSTICAS DEMOGRÁFICAS	1.4.		Fecha de constitución (para las personas jurídicas) o fecha de reconocimiento administrativo como operador económico (para las personas físicas)
	1.5.		Fecha en la que la unidad jurídica deja de formar parte de una empresa (según se identifica en el punto 3.3)
CARACTERÍSTICAS ECONÓMICAS/DE ESTRATIFICACIÓN	1.6.		Forma jurídica
RELACIÓN CON OTROS REGISTROS			Referencia a otros ficheros conexos que contengan datos utilizables con fines estadísticos y en los que figure la unidad jurídica de que se trate
	1.7a.		Referencia al registro de los operadores intracomunitarios establecido con arreglo al Reglamento (CE) n° 638/2004 <sup>(1)</sup> , y referencia a expedientes aduaneros o al registro de operadores extracomunitarios
	1.7b.	Facultativo	Referencias al balance (para las unidades que deben publicar sus cuentas), al registro de la balanza de pagos o de inversiones extranjeras directas, así como al registro de explotaciones agrícolas

<sup>(1)</sup> Reglamento (CE) n° 638/2004 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 31 de marzo de 2004, sobre las estadísticas comunitarias de intercambios de bienes entre Estados miembros (DO L 102 de 7.4.2004, p. 1).

Características adicionales para las unidades jurídicas que formen parte de empresas que pertenezcan a un grupo de empresas:

RELACIÓN CON EL GRUPO DE EMPRESAS	1.8.		Número de identificación del grupo de empresas totalmente residente/truncado (4.1) al que pertenece la unidad
	1.9.		Fecha de asociación al grupo totalmente residente/truncado
	1.10.		Fecha de separación del grupo totalmente residente/truncado

CONTROL DE LAS UNIDADES			Las relaciones de control de residentes pueden registrarse de arriba hacia abajo (1.11a) o de abajo hacia arriba (1.11b). Solo debe registrarse, para cada unidad, el primer nivel de control, directo o indirecto (el conjunto de la cadena de control puede obtenerse por combinación de los mismos).
	1.11a.		Número(s) de identificación de la(s) unidad(es) jurídica(s) residente(s) controlada(s) por la unidad jurídica
	1.11b.		Número de identificación de la unidad jurídica residente que controla a la unidad jurídica
	1.12a.		País(es) de registro, y número(s) de identificación o nombre(s) y dirección o direcciones de la(s) unidad(es) jurídica(s) no residente(s) controlada(s) por la unidad jurídica
	1.12b.	Condicional	Número(s) de IVA de la(s) unidad(es) jurídica(s) no residente(s) controlada(s) por la unidad jurídica
	1.13a.		País de registro, y número de identificación o nombre y dirección de la unidad jurídica no residente que controla a la unidad jurídica
	1.13b.	Condicional	Número de IVA de la unidad jurídica no residente que controla a la unidad jurídica
PROPIEDAD DE LAS UNIDADES		Condicional	Las propiedades de residentes pueden registrarse de arriba hacia abajo (1.14a) o de abajo hacia arriba (1.14b). El registro de la información y de los umbrales utilizados para la participación está condicionado a que dicha información esté disponible en las fuentes administrativas. El umbral recomendado es del 10 % o más de propiedad directa.
	1.14a.	Condicional	a) Número(s) de identificación, y b) participación (%) de la(s) unidad(es) jurídica(s) residente(s) que son propiedad de la unidad jurídica
	1.14b.	Condicional	a) Número(s) de identificación, y b) participación (%) de la(s) unidad(es) jurídica(s) residente(s) que posee(n) la unidad jurídica
	1.15.	Condicional	a) País(es) de registro, y b) número(s) de identificación o nombre(s), dirección o direcciones y número(s) de IVA, y c) participación (%) de la(s) unidad(es) jurídica(s) no residente(s) propiedad de la unidad jurídica
	1.16.	Condicional	a) País(es) de registro, y b) número(s) de identificación o nombre(s), dirección o direcciones y número(s) de IVA, y c) participación (%) de la(s) unidad(es) jurídica(s) no residente(s) que posee(n) la unidad jurídica
2. UNIDAD LOCAL			
CARACTERÍSTICAS IDENTIFICATIVAS	2.1.		Número de identificación
	2.2a.		Nombre
	2.2b.		Dirección (incluido código postal), al nivel más detallado

	2.2c.	Facultativo	Número de teléfono y fax, dirección de correo electrónico e información que permita la recogida electrónica de datos
	2.3.		Número de identificación de la empresa (3.1) a la que pertenece la unidad
CARACTERÍSTICAS DEMOGRÁFICAS	2.4.		Fecha de inicio de las actividades
	2.5.		Fecha de cese definitivo de las actividades
CARACTERÍSTICAS ECONÓMICAS/DE ESTRATIFICACIÓN	2.6.		Actividad principal (código de cuatro dígitos de la NACE)
	2.7.	Condicional	Actividades secundarias, si procede (código de cuatro dígitos de la NACE); este punto solo afecta a las unidades locales objeto de encuestas
	2.8.	Facultativo	Indicación de si la actividad realizada en la unidad local es una actividad auxiliar de la empresa de la que depende (sí/no)
	2.9.		Número de personas ocupadas
	2.10a.		Número de asalariados
	2.10b.	Facultativo	Número total de asalariados en unidades a tiempo completo
	2.11.		Código de situación geográfica
RELACIÓN CON OTROS REGISTROS	2.12.	Condicional	Referencia a otros registros conexos que contengan datos utilizables con fines estadísticos y en los que figure la unidad local (si dichos registros conexos existen)

## 3. EMPRESA

CARACTERÍSTICAS IDENTIFICATIVAS	3.1.		Número de identificación
	3.2a.		Nombre
	3.2b.	Facultativo	Direcciones postal y de correo electrónico, y página web
	3.3.		Número(s) de identificación de la(s) unidad(es) jurídica(s) que compone(n) la empresa
CARACTERÍSTICAS DEMOGRÁFICAS	3.4.		Fecha de inicio de las actividades
	3.5.		Fecha de cese definitivo de las actividades
CARACTERÍSTICAS ECONÓMICAS/DE ESTRATIFICACIÓN	3.6.		Actividad principal (código de cuatro dígitos de la NACE)
	3.7.	Condicional	Actividades secundarias, si procede (código de cuatro dígitos de la NACE); este punto solo afecta a las empresas objeto de encuestas
	3.8.		Número de personas ocupadas
	3.9a.		Número de asalariados
	3.9b.	Facultativo	Número total de asalariados en unidades a tiempo completo
	3.10a.		Volumen de negocios, salvo lo establecido en el punto 3.10b
	3.10b.	Facultativo	Volumen de negocios: con respecto a la agricultura, la caza y la silvicultura, la pesca y la administración pública y la defensa, seguridad social obligatoria, hogares privados con personas ocupadas y organizaciones extraterritoriales
	3.11.		Sector y subsector institucional, con arreglo al Sistema Europeo de Cuentas

Características adicionales para las empresas que pertenezcan a un grupo de empresas:

RELACIÓN CON EL GRUPO DE EMPRESAS	3.12.		Número de identificación del grupo de empresas totalmente residente/truncado (4.1) al que pertenece la empresa
4. GRUPO DE EMPRESAS			
CARACTERÍSTICAS IDENTIFICATIVAS	4.1.		Número de identificación del grupo totalmente residente/truncado
	4.2a.		Nombre del grupo totalmente residente/truncado
	4.2b.	Facultativo	Direcciones postal y de correo electrónico, y página web de la sede del grupo totalmente residente/truncado
	4.3.	Parcialmente condicional	Número de identificación de la «cabeza del grupo» totalmente residente/truncado (es decir, número de identificación de la unidad jurídica que constituye la «cabeza del grupo» totalmente residente) Condiciona: si la unidad que controla es una persona física que no es operador económico, el registro está condicionado a que dicha información esté disponible en las fuentes administrativas
	4.4.		Tipo de grupo de empresas: 1. grupo totalmente residente; 2. grupo truncado bajo control local; 3. grupo truncado bajo control extranjero.
CARACTERÍSTICAS DEMOGRÁFICAS	4.5.		Fecha de creación del grupo de empresas totalmente residente/truncado
	4.6.		Fecha de cese del grupo de empresas totalmente residente/truncado
CARACTERÍSTICAS ECONÓMICAS/DE ESTRATIFICACIÓN	4.7.		Actividad principal del grupo residente/truncado (código de dos dígitos de la NACE)
	4.8.	Facultativo	Actividades secundarias del grupo totalmente residente/truncado (código de dos dígitos de la NACE)
	4.9.		Número de personas ocupadas del grupo totalmente residente/truncado
	4.10.	Facultativo	Volumen de negocios consolidado

Características adicionales de los grupos multinacionales de empresas (tipos 2 y 3 del punto 4.4):

El registro de las variables 4.11 y 4.12a tiene carácter facultativo hasta que se hayan establecido las modalidades de la transmisión de información sobre grupos multinacionales, conforme a lo establecido en el artículo 11.

CARACTERÍSTICAS IDENTIFICATIVAS	4.11.		Número de identificación del grupo mundial
	4.12a.		Nombre del grupo mundial
	4.12b.	Facultativo	País de registro, direcciones postal y de correo electrónico, y página web de la sede del grupo mundial
	4.13a.		Número de identificación de la «cabeza del grupo» mundial, si la «cabeza del grupo» es residente (es decir, número de identificación de la unidad jurídica que constituye la «cabeza del grupo») Si la «cabeza del grupo» mundial no es residente, su país de registro

	4.13b.	Facultativo	Número de identificación de la «cabeza del grupo» mundial o su nombre y dirección, si no es residente
CARACTERÍSTICAS ECONÓMICAS/DE ESTRATIFICACIÓN	4.14.	Facultativo	Número de personas ocupadas en todo el mundo
	4.15.	Facultativo	Volumen mundial de negocios consolidado
	4.16.	Facultativo	País donde se adoptan las decisiones para todo el mundo
	4.17.	Facultativo	Países en los que se ubican las empresas o unidades locales